

ataria

ASTEARTEA

2024/12/17
13. urtea, 2.076. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 95€

«Pozik nago gauzak aurka etorrita izan nuen lanerako jarrerarekin»

OIHANA IGUARAN BARANDIARAN
BERTSOLARIA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean hirugarren postuan geratu da amasarra, buruz burukotik puntu erdira // 3

Anoetan eta Iruran zerbitzu berria dute arlo psikosozialean esku hartzeko

Zailtasunak, oztopoak eta krisi-uneak dituzten pertsonen eta taldeen behar sozialei erantzuteko lau kidez osatutako taldea ariko da lanean // 4




TOLOSA
GIRO EDERRA

Tolosako Babarrun Ekoizleen Lehiaketa Berastegiko Sebas Gartziarenak irabazi du, eta lehiaketa gastronomikoa Tolosako lurre elkarteko Iñaki eta Xabier Beitia aita-seeek; festa giro ederra izan da asteburuan babarrunaren bueltan // 5

AITOR ARROYO ASKARAI

**GABO-
NETAKO
• AZOKA
BEREZIA**



2024.12.21

09.00 – 14.00

Trianguloan, Alondegian, San Frantzisko
pasealekuan eta Plaza Zaharrean

TOLOSA

Bedaion errepedearen zati bat berritzeko lanak bukatu dituzte

Errepideko zoruaren egoera zela-eta hasi zituzten lanak uztailean; bedaiotarrek emaitza begi onez ikusten badute ere, gainerakoa ere konpondu behar dela nabarmendu dute



Bedaia daraman bidean, berritu duten errepedearen zatia. ATARIA

Aitor Arroyo Askarai Tolosa

Bukatu dituzte bidearen zoruak konpontzeko lanak Bedaia daraman GI-3711 errepedean. Zoruaren egoera zela-eta hasi zituzten lanak uztailean eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi du lan horiekin «konponbidea eman» dietela puntu horretan errepikatzen ziren arazoei, besteak beste, luiziei eta inguruan pilatzen ziren urei. Zehazki, errepedearen bosgarren kilometro inguruan sortzen ziren arazo horiek.

Konpontzeko lanak uztailaren 25ean hasi eta azaroaren amaieran bukatu ziren eta, guztira, 341.240 euroko kostua izan dute. Hilabete horietan bide berri bat eraiki dute, zeinak 159 metroko luzera eta 45 metroko erradioko bihurtzea dituen. Horrekin batera, aurreko trazatua naturali-

zatu dute erreka azaleratuz eta asfaltoa lurrarekin estaliz. Hari berari tiraka, baieztatu dute «nabarmen hobetu» dituztela errepedearen egonkortasuna eta segurtasuna.

LANKETA ZABALAGOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, GI-3711 errepedea tokiko errepedeen sareko zoruak hobetzeko 2025eko plangintzan sartuko da.

Zentzu horretan, bide azpiegituretako eta lurralde estrategiko Felix Urkola diputatuak nabarmendu du «konpromiso estrategikoaren erakusgarri» direla lan horiek: «Udalerrri txikien eta landa eremuen garapena ezin da Gipuzkoaren lehentasunetatik kanpo geratu, eta herri txikiek azpiegitura erosoak eta seguruak behar dituzte biztanleen bizi kalitatea bermatzeko eta

eremuon garapena eta hazkundea iraunkorra sustatzeko».

BEDAIOTARREN IRITZIA

Nekane Izagirre herritarrek begi onez ikusten du zati hori konpondu izana, eta gogobeteta hitz egin du emaitzaren inguruan: «Beharrezkoa zen zati hori konpontzeko lanak egitea: euria egin zuenean gainezka egiten zuen. Orain oso txukun geratu da». Dena dela, nabarmendu du zati hori konpondu badute ere, errepedearen gainerako bidean ere behar direla konpontzeko lanak, besteak beste, asfaltoa «oso egoera txarrean» dagoela-eta.

Zati horren inguruan, berriz, aipatu du «lanerako hainbat makinak» oraindik bertan jarraitzen dutela: «Antza zerbait mugitu egin da, eta, errepedean bertan ez bada ere, oraindik bertan jarraitzen dute lanean».



Lehiaketako saridunak, sariak banatzeko ekitaldian. ATARIA

Banatu dituzte lehen ipuin lehiaketako sariak Alegian

Txapelketara, guztira, 98 ipuin aurkeztu dituzte; parte hartzaile eta lan guztiek Txarli Gesteira alegiarraren ilustrazio bat izan dute abiapuntu

Erredakzioa Alegia

Alegiako liburutegiak, aurten lehenengoz, ipuin-lehiaketa jarri du martxan eta joan den ostiralean banatu zituzten sariak. Adinaren arabera hiru mailatan lehiatu dira parte hartzaileak eta, guztira, 98 lan aurkeztu dituzte.

EZAUGARRIAK ETA SARIDUNAK

Kategoriaren arabera hitz-kopuru ezberdin bat zuten muga ipui-

nek eta, guztiek ala guztiek, Txarli Gesteira alegiarraren ilustrazio bat izan dute abiapuntu.

Hori horrela, D kategorian —DBH-3 eta 4— Udane Altunak jaso du lehen saria, eta Ane Labakarentzat izan da bigarrena; B kategorian —DBH-1 eta 2— Ortzi Mujikak jantzi du txapela, eta Lucia Urdangarinek jaso du bigarren saria; eta A kategorian —LH-4, 5 eta 6— Haitz Ariznabarretak jaso du lehen saria, eta Yelizaveta Kriskovak, bigarrena.

Kontzertua emango du Dizdizka koruak

Erredakzioa Alegia

Alegiako Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartek eta Alegiako Udalak elkarlanean Eguberrietarako hainbat jarduera antolatu dituzte. Lehena igandean, hilaren 22an, izango da: Errenteriko Dizdizka gazte abesbatzak emanaldia eskainiko du, elizan, 17:00etan. Landarbaso abesbatzaren harrobiko gazte korua da Dizdizka.

KANTU ESKE HERRIKOIA

Kontzertu horretaz gain, Eguberrietan kantu eske herrikoia ere

antolatu du Txintxarri abesbatzak abenduaren 24rako, eta herritarrei irekitako entseguak prestatu dituzte saioa lantzeko. Joan den asteartean egin zuten lehen entsegua eta azkena, berriz, gaur egingo dute, 20:00etan, Inaxio Begiristain kultur etxean.

Elkartetik deialdi ireki bat dela gogorarazi dute eta, hari horri tiraka, kanturako gogoz dauden herritarrei ekimenarekin bat egiteko gonbidapena ere luzatu diete eta elkarrekin kantuan «arratsalde pasa eder bat» egiteko aukera eskaini.

«Puntu erdi asko galdu nituen bidean»

OIHANA IGUARAN BARANDIARAN
BERTSOLARIA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean hirugarren izan da amasarra; puntu erdiagatik ez du lortu buruz burukora igarotzea

J. A. D. Amasa-Villabona

Alaia Martinek jantzi zuen, la-runbatean, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txapel prezia-tua. Lehen fasea amaituta, zen-bait bertsozalaren kinieletan Oihana Iguaran (Amasa-Villabona, 1991) ageri zen oiartzuarrare-kin batera buruz burukoan, bai-na ez zen hala gertatu. Beñat Gaztelumendik puntu erdiko al-dea besterik ez zion atera, eta az-kenean, hirugarren izan zen amasarra.

Oro har, nola bizi zenuen fina-la illunbeko oholtzan bertan? Ilusio eta poz handia neukan, eta hortik nahi nuen kantatu; eta sentitu nuen hori. Illunbera iri-tsita, polit topatu genuen plaza. Nik, pertsonalki, eskertu nuen oholtza ohi baino baxuago eta jendearengandik gertuago ego-tea. Egiturak berak plazago egin zuen finala. Gure artean ere, tal-de sentipen ona neukan. Bage-nekien bertsolaritzaren korronte berriak ere badakiela bertsotan, eta saio on bat egin genezakeela,

izen handiko bertsolari batzuk hor egon ez arren. Hori ere uste dut sentitu zela, bakoitzak bere-tik eman zuela.

Lehen ariketan, Nerearekin aritu zinen, librean. Nola sen-tituzinen?

Librean egin behar horrek zozke-taren aurretik ekarri zuen ezta-baida: zein norako zegoen prest. Neurria hautatzeko aukera bat-zuk jarri genituen mahai gaine-an. Kontuan izan behar zen jen-dea zenbat arriskatzeko prest ze-go-en, ariketa puntuatuena zelako, pisu handiena zuena, eta hori ere errespetatu behar da.

Zozketan, zortzigarren pos-tuan egokitu zitzaidala ikusi nuenean, banekien saioari eutsi behar niola, beste tenple batean egon behar nuela. Ariketa guz-tietan azkena izateak ere eragi-ten du. Ez da erosoena, ezta erra-zena ere, baina eragiten ez uztea zen helburua; behintzat, horri eustea. Bakarkakoa kantatzera zoazenerako, adibidez, bertsosa-lea nekatu egin da; hori antze-maten da eta badakizu.

Zortziko handian aritu zine-ten denak, bigazteenak izan ezik.

Anerrek egin zuen doinu horre-tarako proposamena, eta oso po-lita iruditu zitzaidan; berarekin egokituz gero, ziur egingo nuke-la. Azpimarratzekoa eta txalo-tzekoa da beraien lehen finale-an, lehen ariketan, horrelako arriskua hartzea. Eta gero egin zuten ofizioa zer esanik ez!

Zortziko txikian, Andonire-kin egin zenuen bertsotan.

Gogo handia nuen, berarekin se-kula kantatu gabe nengoelako. Gainera, berak asmatu zuen. Ni ere bila aritu nintzen, baina ez nuen argitasunik eduki asmatze-ko, kolperik jotzeko. Hortaz, be-rari lana errazten eta elkarrizke-tari eusten saiatu nintzen, distira handirik gabe.

Puntu-erantzunetan itxura-keriaz aritzea egokitu zitzaiz-un. Gustura?

Bai. Oro har, gai politik iruditu zitzaizkidan.

Hamarreko txikian, bertsola-ri puntuatuena izan zinen.

Noka bizian aritu zineten Aner eta biak. Oso gustura su-matzen zitzaizuen.

Opari bat izan zen. Pozik nago, gauzak aurka etorri zitzaizkida-nean izan nuen lanerako jarrera-rekin. Gauzak alde etortzean, ikaragarri gozatu nuen, eta ha-marreko txikia da horren adibi-de. Anerrekin kantatzeko gogo-a nuen, eta azken unean berak egindako proposamena izan zen hikaz egitea. Halaber, gaia asko eskertu nuen, egunerokoan bizi dugun gatazka bati kantatu ahal izateagatik. Uste dut publikoak ere eskertu zuela. Elkarrizketa ederra joan zen.

Eta ganbarako lanean, ikerla-ri postuan, nola sentitu zinen?

Gaia entzutean ez zitzaidan erra-za egin. Burura etortzen zitzaiz-kidan ideia gehienekin, «honi buruz jada kantatu dute», pen-tsatzen nuen. Ideiak eta arrazoi-ketak bilatzen eta alboratzen ari-tu nintzen etengabe. Azkenean, ikuspegi feministatik heltzea erabaki nuen. Halako batean, hasi behar nuela sentitu nuen.

Oraindik ez dut nire bertsosaldia entzun. Ez dut indarririk hartu. Pena daukat, gaia presaz hartu nuelako, axola zaidana, eta sen-tipena dut hobeto egin ahal nue-la. Sentsazioa dut ez nuela asma-tu. Hala ere, pozik eta eskertuta nago, jende multzo batek ulertu zuelako zer esan nahi nuen.

Sentsazio onak zenituen behin lanak amaitzean?

Nahiko pozik nengoen, eginda-ko lanarekin. Hala ere, ganbara-koari bueltak ematen jarraitzen nuen. Oro har, sentsazioa nuen final ona egin genuela, eta lehen finala zutenek izugarri asmatu zutela. Korronte berrietatik ere bertsotan ondo egiten dela fro-gatu zen. Oso pozik nengoen, Alaia denon gainetik ikusten nuelako, eta buruz burukora edozein pasata ere berak irabazi-ko zuela pentsatzen nuen.

Zuretzat ere sari bat izan zen berak irabaztea?

Bai; jende askorentzat nik uste. Ibilbide bati aitorza bat da.

Buruz burukoa jokatzetik puntu erdira geratu zinen.

Non uste duzu lor zenezakeela bigarren fasera sailkatzeko falta izan zitzaizun puntua?

Puntu erdi asko galdu nituen bi-dean. Zortziko handian ez dut uste; nahiko lan egin nuenaren irudipena daukat. Zortziko txi-kian, akaso, bai, ez nuelako asma-tu. Puntu-erantzunetan, ho-betzeko gauza dezente utzi ni-tuen. Hamarreko txikian ez, oso pozik geratu nintzelako eginda-ko lanarekin. Ganbarara joan gi-nenean, sentitu nuen buruz bu-rukorako aukeraren bat baneu-kala, baina bakarkakoa egin ondoren, banekien ezetz, irrist egin nuelako. Amaieran, pozik nengoen, buruz burukotik hain gertu geratu nintzela jakinda.

Puntu erdi

Analisia

Imanol Artola 'Felix'

Harituz Bertsosale Elkartea

Gipuzkoak buruz bu-ruko bat ez ezik txapel bat zor dio Iguara-ni, eta iritsiko da zor hori kitatzeko egu-na» zioen Gorka Azkarate bertsos-analistak igandeko Berria-n.

Lehen ariketa Nerea Eluston-dorekin osatu zuen, eta ez zi-tzairen arratsaldeko gairik erraze-na tokatu: Suhiltzaileen papera egokitu zitzairen; Nereak ikasta-roak egiten ditu lan-orduz kanpo ere, Oihanak ez. Lan egin zuten bi bertsolariek, eta beste ofizioek

baino luzimendu gutxiago izan arren, epaileek ikusi zuten biek egin behar izan zuten lana.

Zortziko txikian suetoago ari-tu zen Rekondorekin: «Kuadri-llakoak zarete. Oihana, elkarre-kin jatetxeren batean otordua egiten duzuen aldiro, Andonik kexa ugari izaten ditu. Gaur ere, otordua hasi orduko, protestan ari da». Amasarrak lehen bertso-an exigentea ez, mizkina dela esan zion Rekondori; eta biga-rreren bertsoa gainera harrabotsa/dezunez sortua / beti deskontua-kin/ heltzen da kontua amaitu zuen. Rekondok zorrotz eran-tzun zion arazoduna zu zeu/zera dena-dela/ ziur pentsua ere/jan-go zenukeela.

Hirugarren ariketan itxurake-ria gai zuten puntuak jarri ziz-

kion Iker Iriarte alegiarrak. Zer gara nahi duguna / edo nahi du-tena zen lehen puntua, eta bertsolarien gaineko pantailari ze-har-begiratu eginez pantailara begira/ hain da nabarmena/ si-netsi nahi genuke/ gu hori gare-na/ ta pantaila ez da inoiz/ ispilu gardena borobildu zuen.

Oihana bera izan zen hama-rreko txikian bertsolaririk pun-tuatuena. Anerrekin batera noka bizi-bizian osatu zuen ofizioa. Gaiak honela zioen: «Lagunak zarete. Tren-geltokian txartela-rekin arazoak izan dituzue, eta segurtasuneko agenteengana joan zarete. Euskaraz egin die-zue, eta segurtasuneko langileek esan dizuete gazteleraz hitz egin ezean ezingo dizuetela ezertan lagundu». Merezi luke bertso

guztiak transkribatzeak, baina ezin. Lehen bertsoa euskaraz egin edo/zerbitzua jaso amaitu zuen amasarrak; bigarrena pen-tsa ze boteretsu/ gainetik ze ahal-tsu/ segurtasun honentzat/ gu gaitun mehatxu. Bertsosaldia hauek ikasterako/ euskararen punta/ AHTa ere/ iritsiko dun ta borobildu zuen.

Ganbarakora bigarren pos-tuan iritsi zen, eta behin-behi-nean buruz burukoan zen. Iker-lari paperetik kantatzea tokatu zitzaion: «Ikerlaria zara. Aur-keztu berri duzun ikerketak ze-resan handia eman du». Lehen bertsoan Osakidetza aipatu arren, ez zegoen gaia guztiz gar-bi, baina ziurtasunez amaitu zuen: Emaitzak atera dira/ jen-dea ez dago lasai/ gaur arte ez

zen begiratu/ edo ez zen begiratu nahi. Bigarren bertsoan obstet-rizia aipatuta, bagenekien haurdunaldiaz ari zela, eta bertso oso ona bikain bilakatu zuen doinuaren errepikapenari es-ker: pazienteak behar luke/ zer nahi duen erabaki/ bere baime-na emanez/ ez duk bisturiz eba-ki,/ ez guk bisturiz ebaki/ baizik berak erabaki.

Ariketa borobiltzeko, hiruga-rreren bertsoan: jada kontra atera da/ lehenbiziko epaiketa/ nazio batuek ontzat/ eman dute sala-keta/ ta ni adi-adi nago/ gehiago izan litezke ta.

637 puntu eskuratu zituen guztira, eta final oso ona osatu zuen; halere, puntu erdi batera geratu zitzaion buruz burukoa. Hurrengoan izango dun!



GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Arreta psikosozialerako zerbitzu berria martxan da Anoetan eta Iruran

Gizarte eta hezkuntza arloetan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuan lau kidez osatutako taldea ariko da lanean: bi kale hezitzaile, psikologoa eta koordinatzailea

Jon Miranda Irura

Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua jarri dute martxan Anoetan eta Iruran, Gizarte Zerbitzuak indartze aldera, bi udalerriek elkarrekin sinatutako akordioari esker. Zerbitzuaren helburua izango da zailtasunak, oztupoak eta krisi-uneak dituzten pertsonen eta taldeen behar sozialei erantzutea eta horretarako lau kidez osatutako taldea ariko da lanean: bi kale hezitzaile, psikologoa bat eta koordinatzaile bat. Urrian osatu zen taldea eta urtarila bitarteko tarte baliatuko du bi herriak ezagutu eta beharren lehenengo diagnostiko bat egiteko.

Azkenaldian Anoetako eta Irurako Gizarte Zerbitzuetan sumatzen hasita daude herritarren beharrak aldatzen ari direla. «Askotarikoak dira herritarren arazo, ondoez eta zailtasunak eta, komunitate mailan, herritar orori laguntzeko programa berri baten beharra ikusi genuen», aipatu du Gorka Murua Irurako alkateak. Gizarte eta hezkuntza arloetan eta arlo psikosozialean esku hartzeko eskumena udalena da eta bi herriek elkarrekin harreman naturala dutela ikusita proiektu bateratua martxan jartzea erabaki dutela azaldu du Bakarne Garmendia Anoetako zinegotziak: «Behar sozialei erantzun egokia emateko talde bakarra osatzea



Joan den ostegunean aurkeztu zieten proiektua eragileei Iruran. J.M.

egokia iruditu zitzaigun, baita eskasak ditugun baliabideak modu efizientean erabiltzeko ere».

DIAGNOSTIKOA URTARRILERAKO
Lehenengo fasean komunitateko eragileekin harremanetan jarriko da lan taldea; alde batetik, zerbitzuaren aurkezpena egiteko; eta, beste aldetik, eragile bakoitzak identifikatzen dituen beharrak jasotzeko. Bi herrien behar sozialen diagnostikoa egin eta behar horiei egokitutako lan proposamen zehatza egingo dute urtarril amaierarako. Muruak esan du bi udalengan badagoela pilotutako esperientzia eta Anoetako eta Irurako gizarte langileak ezinbestekoak izango direla prozesuan.

Onuradunen autonomia indartzea eta gizartean txertatzeko nahiz familian eta komunitatean elkarbizitza egokia lortzeko, gai-

tasun pertsonalak garatzea da zerbitzuaren helburua. Kalexka elkarte arduratuko da zerbitzua eskaintzeaz eta Fermin Martin elkarte kideak azpimarratu du arreta bi modutara landuko dutela: «Zuzenean pertsonekin, familiariekin eta taldeekin elkartuta, eta zeharka, gainerako eragile eta zerbitzuekin koordinatuta».

Gizarte eragileen artean, Garmendiak herriko bi ikastolak, aisialdi zerbitzuak edota osasun arduradunak aipatu ditu eta, hasierako fasean ez ezik, zerbitzua aurrera eramateko haiekin elkarlana egitea ere ezinbestekoa izango dela aipatu du. Prebentzioa sustatzeko komunitateko eragile guztien arteko elkarlanari balioa eman dio Martinek: «Pertsonen eta taldeen zailtasun sozialak gaitzitzea guztion erantzukizuna da».

Jostailuak bilduko dituzte herriko ikastetxeetan

Zubimusun eta Fleming-en bildu eta beharra duten herriko umeen artean banatuko ditu Elkartasun Sareak abenduaren 20 eta 24aren artean

J.M. Amasa-Villabona

Eguberrietarako jostailuak biltzen ari da Amasa-Villabonako Elkartasun Sarea herriko bi ikastetxeen laguntzarekin. Egundotan ari dira bilketa egiten Zubimusu ikastolan eta Fleming herri eskolan eta abenduaren 20an bildutako jolas guztiekin argazki bat aterako dute sareko kideek eta ikas-komunitatekoek. Jostailuen banaketa abenduaren 20aren eta 24aren artean egingo dute. «Bilketaren helburua da ahalmen ekonomiko txikia duten familietako haurrek ez nabaritzea gabeziarik, herriko ume guztiek izan dezatela Olentzero-ren bisita aurtengo Eguberrietan», esan du Julen Zelarain Elkartasun Sareko kideak.

Abenduan antolatutako ekimen hau eta urtean zehar egiten dituzten gainerakoak bi ikuspegiarekin planteatzen dituztela aipatu du Zelarainek: «Alde bateatik, orainari begira, momentuan sortzen diren premiak asetzen saiatzen gara eta, bestetik, etorkizun ikuspegiarekin herrian baldintzak sortu nahi ditugu egoera hauei ahalik eta egokien erantzuteko». Gabonetako ekimenarekin bi helburuak beteko direla uste dute Elkartasun Sareko kideek: «Bi komunitate hain indartsuk parte hartuta seguru gaude behar diren jostailu guztiak bilduko direla, baina ez hori bakarrik, herriko bi ikastetxeen bueltan hainbeste jende dabilela ikusita, badakigu ekimen honek zirimiriak bezala bustiko duela herria. Jende askorengana iritsiko gara eta hori da bigarren ikuspegi horri erantzuteko modua; sentsibiltatea eta kontzientzia sortzea etorkizuneko inbertsio bat egiteko».

Pozik daude Elkartasun Sare-

koak helburu nagusi hauek bete-
tzearekin batera beste txikiago batzuk ere lortzen dituztelako: zabor gutxiago sortzea, berrera-biltzea edota ekonomia zirkularrara bultzatzea, esate baterako. Iaz, gaztetxearekin batera egin zuten jostailu bilketa eta oso arrakastatsua izan zen, sareko kideek esan dutenez herriko ume guztien premiak ase baitziren. Soberan ere geratu zitzaizkien jostailuak: «Banatu gabe geratu ziren horiek, Irrika aisialdi taldearekin batera antolatutako merkatu txikian jarri genituen». Aurtengo soberakinak egongo direla aurreikusi dute sareko kideek, eta dagoeneko hitz egin dute Irrikakoekin udaberrian beste merkatu txiki bat antolatzeko.

IKASTETXEAK GOGOTSU

Fleming herri eskolako zuzendari Jexux Quesadak eskerrak eman dizkio Elkartasun Sareari bilketa hau antolatzeagatik eta, bide batez, urtean zehar antolatzen dituen ekimenengatik. «Dena den Amasa-Villabonako komunitate osoaren laguntzeko jarrera da eskertzekoa, haiek dira benetako protagonistak». Ilusioa ere nabarmendu du herri eskolako zuzendariak, jostailua jasotzen duten haurrena nahiz ikas-komunitateko familiaena.

Zubimusu ikastolako ikasleek azaldu dutenez Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako proiektu komunitarioan landu dute gaia eta jostailu eta baserritar jantzien bilketa egin dute. Jostailu asko bildu dituzte eta nabarmendu dute dagoeneko utzi dutela jasotako materiala Elkartasun Sarearen eskuetan. «Espero dugu Eguberri zorionsuak pasatzea eta gure ekarpenak horretan laguntzea», esan dute ikastolako ikasleek.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 AMETS EGITEKO ALBUM SORTA BAT Haur literatura (3-7 urte)

Pamiela-Kalandraka
www.pamiela.com/eu/

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako
bina sarrera

www.aquariumss.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

Parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefono zenbakira edo sartu Ataria.eus webgunean
Parte hartu asteazkeneko 12:00ak arte. Saridunak ostegunean argitaratuko ditugu.

Berastegiko Sebas Gartziaarenaren babarruna, onena

Tolosako Babarrun Ekoizleen bigarren saria Tolosako Gorregi baserriko Estitxu Sudupek lortu du, eta hirugarrena Albizturko Iriarte baserriko Alberto Labakak

Aitor Arroyo Askarai Tolosa

Lekale beltza izan zen larunbatean Tolosako protagonista. Azoka bereziko postuen eskaintzaz harago, bi txapelketek bereganatu zuten arreta: batetik, Tolosako Babarrun Ekoizleen 29. Lehiaketak; eta, bestetik, Gure Kaiola elkarteak antolatutako XXXVII. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoak.

Ekoizleen norgehiagokan, 25 parte hartzaile izan dira aurren, eta eskualdean geratu dira hiru sari nagusiak: txapela Berastegiko Ibaiondo etxeko Sebas Gartziaarenak jantzi du —zeinak 2019an ere irabazi zuen txapelketa—, bigarren postua Tolosako Gorregi baserriko Estitxu Suduperentzat izan da, eta hirugarren Albizturko Iriarte baserriko Alberto Labaka sailkatu da.

Lehiaketa gastronomikoan ere 25 bikotek hartu dute parte, eta Tolosako Iurre elkarteak Iñaki eta Xabier Beitia aita-semeek irabazi eta Tolosaldeko bikote onenaren saria ere eskuratu dute. Haien atzetik, Ibarrako Bixente Artola eta Alberto Zubelzuk lortu dute bigarren saria, eta hirugarrena Juan Rangel eta Marina Plano garinoaindarrentzat izan da. Emakume bikote onenari ere eman diote saria aurren eta garaikur hori Estibaliz Nuñezek eta Maria Belen Mirayesek osatutako bikoteak irabazi du.



Goian, lehiaketetako irabazleak. Behean, babarrunak banatzen. A.A.A.



UDAZKENEKO AZOKA

Udazkeneko azoka egin zuten herenegun Berrobin. Denera 26 postu jarri zituzten eskolako aterpean; taloak jateko aukera izan zen, eta animaliak ere jarri zituzten. L. CARRASCO



JAIALDI ARRAKASTATSUA

Inauterietan Ertzaintzaren pilotakadaz zauritutako gazteaz gain, «indarkeria polizialaren biktima guztiak omentzeko» jaialdia egin zuten larunbatean, Xuhar plataformak antolatuta. 1.400 sarrera saldu zituzten jaialdirako. A. IMAZ



ARGAZKIERRALDOIA

Sarek deituta, argazki erraldoia egin zuten larunbatean Zerkasian. Bihar, berriz, euskal presoaren egungo egoera izango dute hizpide Tolosako batzar aretoan, 19:00etan. ARRIESTUDIOA

SARREREN SALMENTA

atarikideek

Abenduak 18, asteazkena (15:00-18:00)
Abenduak 19, osteguna (10:30-13:30)
Abenduak 20, ostirala (10:30-13:30)

*Sarrerren salmenta fisikoki **atarian**. Ordainketa dirutan edo txartelarekin.

- **atarian** bertan erosten diren sarrerak 16€-ko prezioa.
- **atarikide** bakoitzak prezio murriztuan bi sarrera erosteko aukera, hirugarren sarreratik aurrera 19€. Gehienez 6 sarrera erosteko aukera.

atarikide ez direnek

Abenduak 27tik aurrera
sarrerak online erosteko aukera,
prezioa 19€ + kudeaketa gastuak (%6).

Informazio guztia hemen:



ataria
BERTSO
JAIALDIA
2025

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

14. jardunaldia

San Juan - Lauburu Ibarra 3-5

Sailkapena

1. Otxartabe 34p
2. Vulcanizados Ruiz 33p
3. Lauburu Ibarra 31p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu Ibarra (3) - Albelda (14)

HIRUGARREN MAILA

12. jardunaldia

Kukuyaga Etxebar. - Tolosala 2-2
Lauburu - Antiguoko 0-6

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

13. jardunaldia

Utebo - Tolosa CF Eskubaloia 35-37

Sailkapena

1. Anaitasuna 25p
7. Tolosa CF Eskubaloia 15p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF Esk. (7) - Hondarribia (5)

Futbola

3. FEDERAZIO MAILA

15. jardunaldia

Tolosa CF - Arratia 2-2

Sailkapena

1. Bizkerre 35p
2. Athletic Club C 33p
9. Tolosa CF 20p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (9) - Bizkerre (1)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

GIZONEZKOAK

14. jardunaldia

Mutriku - Tolosa CF 3-2

Sailkapena

1. Zarautz 29p
12. Tolosa CF 14p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (12) - Mondragon (16)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAKUMEZKOAK

12. jardunaldia

Ondarbeltz - Tolosa CF B 1-2

GIZONEZKOEN GORENGO MAILA

12. jardunaldia

Billabona - Getariako Keta.B. 0-0
Orioko - Danena 5-1

EMAKUMEZKOEN GORENGO M.

11. jardunaldia

Aiztondo - Ilintxa 1-2

GIZONEZKOEN 1. ERREGIONALA

11. jardunaldia

Tolosa CF B - Lazkao B 4-0
Intxurre - Bergara B 1-0

SASKIBALOIA

HIRUGARREN FEB MAILA

10. jardunaldia

Tabirako Baque - Iruki TAKE 71-83

Sailkapena

1. Castillo de Gorraiz 8-2
4. Iruki TAKE 7-3

Hurrengo jardunaldia

Iruki TAKE (4) - Rest. Los Arcos (3)

EUSKAL LIGA 2. MAILA

11. jardunaldia

Navasket 62
Eguzkitza Sagardotegia TAKE 60

Sailkapena

1. Getxo 9-2
9. Eguzkitza Sagardot. TAKE 1-10

Hurrengo jardunaldia

Eguzkitza Sagardotegia TAKE (9)

Jacobeo Alberite (10)

GIPUZKOAKO 1. MAILA

10. jardunaldia

Ordizia - Take Orbela Tab. 73-45
Elorri-Aldapa - STL Azkune 65-53

Magunazelaiak txapela eta zaletuak irabazi ditu

Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa irabazi du berriro, baina bizkaitarra ez da gerturatu iaz egindako markara

Asier Imaz Asteasu

Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa jokatu zen larunbatean Asteasun. Zortzi harri jaso-tzaile aritu ziren lehian eta Urdax Magunazelaia bizkaitarra izan zen onena, alde handiarekin gainera. Ez zuen iaz jarri zuen marka hobetzerik izan, baina bigarrenari 2.000 kilo baino gehiago atera zizkion. Erakustaldia eskaini zuen bizkaitarrak, eta Asteasuko zaletuak sutan jarri zituen.

Jokin Eizmendi izan zen bigarren sailkatua, 6.950 kilorekin. Zarautzarrak saio amaieran barkamena eskatu zuen, ez zuelako egun erraza izan. 200 kiloko errektangularra Stepan Tsirkinek puskatu egin zuen, eta ondoren zetorren Eizmendi erabat lehiatik at geratu zen, bere harria zelako, entrenamenduetan era-



Magunazelaia, txapelketaren une batean, Asteasuko pilotalekuan. A. IMAZ

bat erabiltzen zuena, eta ez zuelako gaingitu galera hori. Harri arrotzarekin aritu zen lehen ariketa horretan, eta 7 jasoaldi eman zizkion.

Hirugarren posturako lehia es-tua zegoen Gari Garmendia eta Xabier Aranburu *Guzta*-ren artean. Azken hau aurretik iritsi zen azken ariketara, baina hor Gar-

mendia bikain ibili zen, bolari 19 jasoaldi emanez. *Guzta*, gainera, lesionatu egin zen eta hor joan zitzaion hirugarren postua.

Bosgarren Imanol Royo sailka-tu zen, lan bikaina eginez. Ondo-rengo postuetan Sergio Mielgo, Stepan Tsirkin eta Gorka Etcheberria geratu ziren, hurrenez hurren.

Iztuetak, hirutik hiru

Erredakzioa


Pixkana ari da itxura hartzen Bi-nakako Pilota Txapelketa, hiru-garren jardunaldia jokatu berri-tan. Martxel Iztueta Lasorekin batera sailkapeneko buruan dago, hiru partidak irabazita. As-teburuan 22-5 irabazi dute Jon Ander Peña tolosarra ordezkatz-zen zuen Larrazabal eta Albisur-ren aurka. Peña II.ak oraindik ez du partidarik irabazi.

Eskualdeko bi pilotari aurkari izan diren partidari, Iñaki Artola alegiarrak irabazi dio Erik Jaka lizartzarrari. Artola eta Mariez-kurrena II.a 14-22 gailendu zaie Jaka eta Imazi. Artolak bi garaipen ditu, eta Jakak bakarra.

Bere aldetik, Jokin Altuna amezketarrak galdu egin du bere partida, Arangurenekin batera 11-22 Ezkurdia eta Rezustaren aurka. Partida bakarra irabazi du Altuna III.a.

SERIE B TXAPELKETA

Eskualdeko bi pilotari ari dira jo-katzen bigarren mailakoan. Ga-birondo gazteluarrak galdu egin du Dariorekin batera, 19-22, Egi-guren V.a eta Bikuñaren aurka. Bi garaipen ditu Gabirondok. Ugartemendia alkizarraren ordez Lizeaga aritu da asteburuan. Alberdi II. arekin batera 12-22 gal-du zuten Senar eta Eskirozen aurka. Ugartemendiak ez du par-tidarik irabazi oraingoz.



Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu

Inveready Gipuzkoa
VS
Odilo FC Cartagena CB
partida ikusteko

Abenduak 20, ostirala
20:30
Donostiako Amenabar
Arenan

Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu



Abenduak 21,
larunbata
19:00
Tolosako
Gure Zirkuan

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95 edo Ataria.eus

zozketak

Atarikideentzat
2 sarrera bikoitz ditugu

Porrotx, Marimotots,
Pupu eta Lore
OSTIRALA IRITSI DA!!
JAIALDIA

Abenduak 28, larunbata
16:00etan eta 18:00etan
Ordiziako Majori kiroldegian



Ibarrak irabazi du lauko mistoan

Euskal Herriko Sokatira Txapelketako 4x4ko modalitate mistoan lortu du garaipena Ibarra Sokatira Taldeak

Imanol Garcia Landa Ibarra

Bizkaiko Murueta herrian jokatu zen larunbatean Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren finala 4x4ko modalitate mistoan, eta Ibarra Sokatira Taldeak lortu zuen garaipena. Bigarrenak Txantrea izan ziren eta hirugarrenak Beti Gazte. Guztira zazpi laukote aritu ziren lehian.

Ibarrako taldea Lander Otermin, Argiñe Intxaurre, Urtzi Otermin eta Ainara Otamendi sokatiralariak osatu zuten. Berarekin izan ziren Jabier Otermin entrenatzailea eta Iñigo Aizpuru botileroa. Lander Otermin azaldu duenez, «nahiko parekatua izan zen txapelketa,



Ibarra Sokatira Taldeko kideak, lauko mistoa irabazi ondoren. POTRONKO

eta aurkari gogorrenak Txantreakoak izan ziren». Ibarrako laukotean bi sokatiralari berri aritu ziren, eta Oterminen kezka ba-

zuen nola moldatuko ote zen laukotea: «Azkenean txapelketan oso ondo aritu ginen, oso sentazio onak izan genituen».



Hainbat patinatzaile, Irristaka IX. Indoor Sariaren une batean. LEYRE CARRASCO

Usabalgo pista konkistatu dute lau gurpiletan

Irristaka IX. Indoor Saria izan da jokoan, eta bertan Euskal Herriko patinatzaile ugari lehiatu dira

Erredakzioa Zizurkil

Usabal kiroldegiko parket zorua konkistatu zuten igande goizean patinatzaileek. Bertan, Tolosako Irristaka taldeak antolatzen duen Irristaka Indoor Saria jokatu zuten, bederatzigarren aldiz.

Parte hartzaileak hiru mailatan banatu ziren: 2016-2013 bitartean jaiotako patinatzaileak, neska-mutilak batera aritu ziren eta ez ziren lehiaketa barruan sartu, beraz, ez zen sailkapenik egon; 2012-2009 bitartean jaiotakoak, neskak eta mutilak banatuta aritu ziren, eta baita 2008tik aurreragoak ere. Bi kategori horietakoak lehiaketa barruan sartu ziren.

Ohi moduan, bi proba egin behar izan zituzten. Lehenengoan patinatzaileek lau itzuli eman behar izan zizkieten pistari, eta bigarren proban, berriz, bederatziz edo hamabi itzuli, kategoriararen arabera. Horrez gain, erreleboetako proba ere jokatu zuten, gazteen zein helduen mailan.

Gazteen mailan nesketan Amañur Amenabar Igartua izan zen irabazlea, eta mutiletan Ioritz Marques Herrero. Helduen maila nesketan Uxue Sola Baigorri izan zen aurrena, eta mutiletan Borja Navarro Fernandez. Erreleboetan, gazteen mailan, Donibane K.E. taldeak lortu zuen garaipena eta helduen mailan UDC Txantrea KKE taldeak.



DEL POZO ETA ARIZETA, IRABAZLE

Zizurkilgo Kirol Astearen barruan, Gau Krosa irabazi zuten Paula Del Pozo alegiarrak eta Urko Arizeta asteasuarra. Emakumezkoetan bigarrenak Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan zen eta hirugarrena Zarautzen bizi den Nerea Amilibia zizurkildarra. Gizonezkoetan, bigarren Jon Zubeldia asteasuarra eta hirugarren Iker Manso tolosarra izan ziren. AIURRI

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



**Aintzane
Arizmendiarreta
Ansozregi**

Otamotzen kolaboratzailea eta
Goierriko HITZaren banatzailea

*Guztiaren gainetik lankide
fina eta lagun ona.*

Goierriko HITZaren lantaldea

ZUMARRAGA, 2024ko abenduaren 17an.



ASTEARTEA, 2024KO ABENDUAK 17
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Eider Aierbelsasti
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goizta, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Iruia, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil
galtzaundi **Txolirre** **berria** **BERTAKO HEDABIDEAK** **Tolosaldeko gizarte eragileak**

Galtzako komik lehiaketak baditu irabazleak

215 komiki jaso dituzte lehiaketaren 17. edizioan; lan guztiak ikusgai egongo dira Ibarrako kultur etxean hilaren 23ra arte

Aitor Arroyo Askarai Ibarra

Urtero bezala, Ibarra Galtzako komiki lehiaketa antolatu dute Ibarrako Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak. 215 komiki jaso dituzte eta ostiralean banatu zituzten sariak. Lan guztiak ikusgai egongo dira Ibarrako kultur etxean, abenduaren 23ra bitarte. Aurten 17. edizioa bete du txapelketak, eta izan du berezitasunik, sari nagusia —17 urtetik gorakoa— bi lanek irabazi baitute, berdinduta: Julen Madariagaren (Altzo) *Urdintasunean* eta Nahikari Qian Artanoren (Astigarraga) *Gure koloreak*. Horrez gain, urtero lehiaketako komiki bat argitaratzen dute eta, aurten, Qian Artanoren *Gure koloreak* eramango du paperera *Denon artean* argitaletxeak.

Gazteagoei begira, 13 eta 16 urte bitartekoen mailan, Nora Ansorena tolosarrak irabazi du lehen saria *Begirada okerren atzean* komikiarekin; 10 eta 12 urte artekoan, berriz, Maren Martin hernialdetarrak jantzi du txapela *Fishikat* lanarekin; eta 9 urte artekoen mailan, Gari Azpeitia tolosarraren *Iker eta 8 mirariak* globoan izan da onena.

Epaimahaia Yurre Ugarte idazleak, Joseba Larratxe *Josevisky* arkitekto zein komikigileak eta Loinatz Lekuona ilustratzaileak osatu dute.



Kultur etxean daude ikusgai lehiaketara aurkeztutako lanak. A.A.A.

IRABAZLEAK

17 urtetik gora.

1: *Urdintasunean*, Julen Madariaga (Altzo).

1: *Gure koloreak*, Nahikari Qian Artano (Astigarraga).

13-16 urte.

1: *Begirada okerren atzean*, Nora Ansorena (Tolosa).

2: Saria eta Ibarrako onena: *Maitasuna koloreen artean*, Haizea Artola. Aipamen berezia: *Basoa*, Ana Zubizarreta (Albiztur).

1. Aipamena: *Sua uraren kontra*, Xuban Armendariz (Ibarra).

2. Aipamena: *Frutalandia*, Aiora Iturriz (Ibarra).

10-12 urte.

1: *Fishikat*, Maren Martin (Hernialde). Ibarrako onena: *Urunbaiko lakua*, Eki Mendizabal (Ibarra).

Aipamena: *Amonaren baratzea*, Irati Etxegoien (Belauntza).

9 urterarte.

1: *Iker eta 8 mirariak* globoan, Gari Azpeitia (Tolosa).

2: *3 lagun berriak*, taldean (Ibarra).

Aipamena: *Nik bi ama ditut*, Lizar Uranga (Tolosa).

ASTEARTEA 17

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Gabon kantu eske herrikoirako entseguak, kultur etxean, 20:00etan.

Altzo. *Palestina... jasanezina!*, Batzarremuñon, 19:00etan. Arantxa Elizegi *Berria*-ko kazetariak Mikel Reparaz kazetaria da eta nazioarteko politikan aditua elkarriketatuko du, Palestinako egoeraren inguruan.

Anoeta. *Maitasun kapitala* lana aztergai, irakurketa feministan. Liburutegian, 18:30ean.

Ibarra. *Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu gabe* tailerra, Energia Argitaren bitartez. Jubilatuen elkarteak, 17:00etan.

Tolosa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egutegiaren banaketa. Gazteluko plazan, 10:00etatik 11:00etara; Leaburuko plazan, 11:30etik 12:30era; Altzoko plazan, 13:00etatik 14:00etara; Lizartzako plazan, 16:00etatik 17:00etara.

Tolosa. Bihotzetik elkarteak antolatutako solasaldia: *Gabonak, etxean aulki hutsarekin*. Kultur etxean, 18:30ean.

Tolosa. *Euskal preso* en egungo egoera solasaldia, Sareren eskutik. Batzar aretoa, 19:00etan.

Zizurkil. *Niez naiz Mikel Laboalana* aztertuko dute tertulia literarioan, 17:30ean.

Musika

Amasa-Villabona. Loatzo musika eskolaren Gabonetako emanaldia. Gurea antzokian, 18:30ean.

Tolosa. Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren Gabonerako kontzertua. Leidor aretoa, 19:00etan.

+FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Egunekoa. O. Etxebeste. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

Tolosa. Gauekoa. L. Azpiroz. Larramendi 6 behe, 1. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Goizean erdi eta goi-mailako hodei batzuk ostarteekin tartekatuko dira, baina giroa argia eta atsegina izango da. Arratsaldean antzeko joera errepikatuko da, hodeiak eta ostarteak tartekatuko direlarik. Azken orduetan hodeiak ugarituko dira, baina inolako ondorioz ekarri gabe. Hego-haizea bizi ibiliko da, tarteka bolada zakarrek mendi inguruetan. Tenperaturak gora egingo du, 14-16 graduan joz goia.

Bihar. Goizean berriz ere erdi eta goi-mailako hodeiak ostarteekin tartekatuko dira, eta giro eguzkitsua nagusituko da. Arratsaldean hodeien presentzia areagotuko da, baina inolako ondorioz ekarri gabe. Hego-haizeak zakar xamar jotzen jarraituko du, bereziki mendi inguruetan. Tenperaturak are gehiago egingo du gora, 16-18 gradu epeletan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:

KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

VILLABONA - MAIATZAREN LEHENA

- 3 LOGELA ETA 2 BAINUGELAKO ETXEBIZITZAK
- KOKAPEN PAREGABEA ERDIGUNEAN
- GARAJE ITXIA AUKERAN

